



## **SEGURAKO UDALA**

Herritarrok,

Otsailaren 28an bukatuko da ordenantza fiskaletan jasota dauden hobariak eskatzeko epea. Eskaera udalean egin behar da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.

Hona hemen bertan jasotzen direnen laburpena:

### **IBILGAILUEN ZERGA:**

- Elektriakoak: %60ko hobaria
- Hibridoak: %40ko hobaria
- Katalizadoreak erabiltzen dutenak: %20ko hobaria
- 30 urtetik gorakoak: %100eko hobaria
- Pertsona desgaituen izenean matrikulatutako ibilgailuak zerga ordaintzetik salbuetsita daude

Honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

- a) Desgaitasun %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, %25 edo hortik gorako mugikortasun falta eman zaienean. 14 zaldi fiskaleko muga.
- b) Desgaitasun maila %65ekoa edo handiago duten pertsonak. 14 zaldi fiskaleko muga.
- c) %75 edo hortik gorako mugikortasun falta eman zaienean. Zaldi fiskaletan mugarik ez dago, betiere ibilgailua gorpil aulkia eramateko egokituta badago.

- Pertsona desgaituen izenean matrikulatuta ez dauden ibilgailuak, baldin eta titularrak bere kargura %65eko edo handiagoko desgaitasun maila duen pertsona bat baldin badu. Zerga ordaintzetik salbuetsita daude. Gehienez ibilgailu bati aplikatuko zaio salbuespena.

## ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA

- Familia ugarietzat, errentaren arabera:

Bizikidetzta-unitateko pertsona kopurua	HOBARIA		
	90%	75%	50%
3	< 21.980 €	21.980 € - 25.060 €	25.601 € - 30.101 €
4 edo gehiago	< 23.660 €	23.660 € - 27.020 €	27.021 € - 32.340 €

Ekarri beharreko dokumentazioa:

Ogasunak ematen duen informazio fiskala.

Familia ugariaren titulua.

Beste ondasun higiezinaren batzuren jabea ez izatearen zinpena aitortpena (garaje bat, trastero bat izan ezik).

Eskaera urtero berri beharko da.

- Eguzki plakak dituzten etxebizitzak: % 30eko hobaria hurrengo sei urteetan.
- A motako eraginkortasuneko etiketa dutenak: %50eko hobaria hurrengo hamar urteetan.
- B motako eraginkortasuneko etiketa dutenak: % 30eko hobaria hurrengo hamar urteetan.

## HONDAKINEN TASA

- Errentaren arabera:

Bizikidetzta-unitateko pertsona kopurua	HOBARIA		
	90%	75%	50%
1	< 15.400 €	15.400 € - 17.500 €	17.501 € - 21.000 €
2	< 20.160 €	20.160 € - 22.820 €	22.821 € - 27.440 €
3	< 21.980 €	21.980 € - 25.060 €	25.601 € - 30.101 €
4 edo gehiago	< 23.660 €	23.660 € - 27.020 €	27.021 € - 32.340 €

Ekarri beharreko dokumentazioa:

Ogasunak ematen duen informazio fiskala.

Eskaera urtero berri beharko da.

Seguran, 2025eko urtarrilaren 13an.

Segurako Udala